

Reala ♦ Txuri-urdinek hiru puntuen beharra dute zazpigarren postua lortzeko borrokan jarraitzeko

Garaipenak bakarrik balio du

Valentziak ere irabazi beharra du bigarren postua eskuratu nahi badu

Asier Errasti / Donostia

AURKARI gogorra izango du gaur Realak, etxetik kanpo ligako talde arriskutsuenetarikoa baita gaur arratsaldeko 19:00etatik aurrera Anoetan izango den Valentzia. Beraz, argi dago txuri-urdinek ez dutela batere partidu erreza izango gaurkoan. Hori bai, Realari garaipenak bakarrik balio dio Europara sailkatzeko borrokan jarraitu nahi badu. Izan ere, dagoeneko seigarren postua eskuratzea oso zaila dagoen arren, Realak liga zazpigarren postuan amaitzeko ahalegina egin beharra du azken lau partiduetan, oraindik ere guztiz argi ez dagoen arren, zazpigarren postuak UEFA-n jokatzeko aukera eman baitezake.

Gauzak horrela, Real Madrid eta Celtaren aurka erakutsitako maila bikaina berretsi nahiko dute gaur txuri-urdinek hiru puntuak eskuratzeko. Horretarako azken partiduetako jokalaria berdina zelairatuko ditu Bernd Kraussek, Lopez Rekarte baita Celtaren aurkako partiduekin alderatuta taldean sartuko den jokalaria bakarra. Ondorioz, Real Madriden aurkako partiduko ha maikako bera zelairatuko du gaur ere Realak. Hori bai, gaur goizeko 11:00etan txuri-urdinek Zubietan azken entrenamendu arina egingo dutela kontuan izan behar da. Ondoren deialdia emango du Bernd Kraussek eta badirudi, aspaldiko partez, Mikel Antia ez dela bertan izango, donostiarra arazo muskularrekin baitabil.

Vlaovic eta Illieren arteko zalantza

Valentziarentzat ere oso garrantzitzua da gaurko hiru puntuak eskuratzeko, Rainieriren mutilak Txapeldunen Ligarako txartel zuzena ematen duen bigarren postuaren bila baitabilta azken jardunaldi hauetan. Partiduari begira, Ranieri italiarrak bi zalantza ditu aterako duen ha maikakoaren inguruan: eskuin lateralean Angloma edota Angulo jartzea eta aurrean Vlaovic edota Illie jartzea Claudio Lopezen alboan.

Espainiako Lehen Mailako 35. jardunaldia									
REALA					VALENTZIA				
Entrenatzailea: Bernd Krauss					Entrenatzailea: Claudio Ranieri				
Aulkian: 25 Ochoa, 8 Guerrero, 21 De Paula, 24 Jaurriaga, 22 Kuhlmann, 19 Costas					Aulkian: 13 Barrial, 14 Barja, 25 Schwarz, 19 Vlaovic, 17 Serban, 23 Angulo				
Etxean: Inuladi 11, Barja 4, Galdin 2, Galdin alde 30, Galdin kontra 14					Kanpoan: Inuladi 8, Barja 3, Galdin 7, Galdin alde 22, Galdin kontra 21				
Orokorrean: Postua 9, Puntuak 50 (+5)					Orokorrean: Postua 5, Puntuak 38 (+10)				



Ricardo Sa Pintok aurrelari jokatzeko jarraituko du gaur Darko Kovacevicen alboan.

Aitor Lopez Rekarte • REALEKO JOKALARIA •

«Piojoren gainean egon beharko dugu»

REAL MADRIDEN aurka bostgarren txartel horia ikusi ostean, partidu bateko zigorra bete behar izan zuen Vigon Aitor Lopez Rekartek. Aldiz, Miguel Fuentes bere ordezkioak lesio larria izan zuen Celtaren aurkako partiduan. Horrek arrasatearra gaur berriz ere hasierako taldera itzultzea erreztu du.

Partidu bateko zigorren ondoren, gaur berriz ere hasierako taldera itzuliko zara. Nola ikusten duzu jokatzeko aukera berri hau?

Egia esan, esperantzarekin eta gogo handiz, izan ere argi daukat beti jokatzeko entrenatzen dudala. Orain partiduan gauzak nola iretzen diren ikusi beharko da.

Urtean zehar etxetik kanpo oso talde arriskutsua dela erakutsi du Valentziak.

Bai, argi dago etxetik kanpo oso ondo jokatzeko duela Valentziak, kontraerasoan oso ongi aritzen den taldea baita. Oso talde ona osatzen dute eta zelaia erdian eta aurrean kalitate handiko

jokalaria dituztenez, oso arriskutsuak dira.

Gainera, Piojo Lopezekin oso kontuz ibili beharko duzue atzelariak...

Bai, oso jokalaria azkarra da Piojo Lopez. Hori dela eta, gelditu ahal izateko bere gainean egon beharko dugu partidu guztian zehar.

Realari garaipenak bakarrik balio dio gaur, ezta?

Bai, hemendik liga bukatu bitartean, gure helbura ahalik eta partidu gehien irabaztea izan behar da. Gainera, azken partiduetan tal-

Mendieta-Lopez bikotea gelditzea erabakigarria

Asier Errasti

Mendieta • Deschamps eta Lizerazurekin batera, Real eta Athleticetik kanpo jokatzeko duen euskal jokalaririk onenetakoa bihurtu da Gaizka Mendieta, inongo zalantzarik gabe. Langile nekaezina da zelaia-erdian, baloia trebetasun handiz ateratzen du atzetik, falta jaurtiketetan oso iaioa da, gora arrisku handiz heltzen da... Mendieta bilakaera etengabea izan du azken urteetan eta Valentziako jokalaria garrantzitzuenetakoa bihurtu da dagoeneko. Realak kontuan izan beharko du gaur Valentziaren eraso Mendieta hanketan hasten dela gehienetan.

Piojo Lopez • Denboraldi bikaina egiten ari da Valentziako aurrelari argentinarra. Bere azkartasun ikusgarria aprobetxatuz, aurrera bidalitako edozein baloi pase bikaina bihurtzeko gaitasuna du Lopezek. Gainera, ate aurrean ere oso ondo ari da aurtan —18 gol daromatza Ligan—. Espazioak dituenean munduko jokalaria erabakigarrienetakoa da Claudio Lopez, eta oso gertutik zaindu beharko dute gaur Realen atzelariak. Ez dute batere lan erraza izango.



ARTXIBOKOA

dea fisikoki oso ondo eta gogo handiz dagoela ikusi ahal izan da. Partidu guztiak irabazteko ahalegina egin behar dugu eta ostean, ikusiko da zer gertatzen den.